

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



**Pitito ta potota
gonari ez zaio inporta!**

Kaixo herrikide!!!

Oraingo alea ere potolo xamarra atera zaigu ba... izan ere, bada ze kontatua! Datozen asteetan herrian izango diren ekintzak daukazue hasierako orrietan eta izandakoak ondorenean. Herri Kontseiluak eskuartean dituen hainbat kontu ere bai. Horrez gain, atal berri bat sortu

dugu eta argazki zaharrak eta garai bateko kontuak izango dira bertan protagonista.

Bestalde, ez ahaztu maiatzaren 12, 13 eta 15ean Udaberri Festa ospatuko dela. Aurtengoa berezia izango da gainera.

Gustatuko zaizuelakoan... on egin!

Argazki lehiaketa martxan, jaietako portada aukeratzeko

Lanak entregatzeko azken eguna, maiatzaren 7a da (astelehena).

Ttonttorro Jai Batzordearen Argazki Lehiaketa martxan da. Aurkezten diren lanen artean, programako portada aukeratzeko da. Lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 7a da.

Antolatzaileek azaldu dutenez, Igeldorekin zerikusia duen argazki, marrazki, montaje edo collagea izan daiteke. Argazkiaren tamainari dagokionean, berriz, 14,85x21 cm izan behar ditu.

Aurkezteko, hiru bide

Lanak aurkezteko hiru bide jarri dituzte:

1. Kultur etxeko buzoian utzi (sobre baten barruan eta izen-abizenak adieraziz).

2. Bulegoan entregatu (sobre baten barruan eta izen-abizenak adieraziz).

3. Postaz bidali: Itsas Aurre kultur etxea, Igeldoko plaza 4, 20008 (sobre baten barruan eta izen-abizenak adieraziz).

4. Emailez bidali helbide honetara: ttonttorro@gmail.com.

Bi sari

Irabazleak bi sari jasoko ditu aurtengo honetan. Alde batetik, San Pedro jaietako programako portada izango da bere lana eta bestetik, Untzi Museorako bi sarrera eskuratuko ditu.

Animatu eta parte hartzeko dei egin dute!

Ekintza berriak, San Pedrotan

Azken urteetan saiakera egiten ari da Jai Batzordea herriko festak herritarrei ahalik eta gehien zabaldu eta bakoitzak bere gustoko gauzak antolatzeko aukera izan dezan. Iaz, aldaketa batzuk izan ziren eta aurtien beste ekintza

berri ugari izango dira: moda desfilea bigarren eskuko arroparekin eta azoka, Umore Horiya... Horien berri emanez, aparteko eskuorriak banatu ditu Jai Batzordeak. Hala ere, hori ez da dena. Sorpresa gehiago ere izango dira!

Robotikako ikasleak, Donostiako Txapelketan

Txapelketa maiatzaren 20an izango da Donostiako Eureka Zientzia Museoan.

Urtero bezala, Doplay enpresak haurrentzako Robotika Txapelketa antolatu du Donostian. Eureka Zientzia Museoan (Kutxaespazioan) izango da maiatzaren 20an eta Igeldoko robotika ikasle batzuk bertan izango dira. Asteburu horretan Gurasoek antolatutako irteera dago eta ikasle denek ez dute parte hartzerik izango txapelketan.

Mikel Echeverria da Igeldoko robotikako irakaslea eta bere ekimena izan da txapelketan apuntatzea. Txapelketaren inguruko azalpenak eman dizkio Orri Informatiboari: «Erabili beharreko materiala Lego Mindstorms kit robotikoa da. Txapelketarako helburu batzuk bete behar dituen robot bat diseinatu, montatu eta programatu beharko dugu. Txapelketa 7 eta 15 urte inguruko ikasleei irekia dago, eta helburu ezberdinak izango dituzte adinaren arabera. Guk egin beharreko robotek zelai joko batean dauden objektu batzuk toki batetik bestera desplazatu eta bandera antzeko batzuk zapaldu behar dituzte. Zelai jokoan bi ekipo egongo dira robot banarekin eta egin beharrekoa denbora laburrenean lortzen duen ekipoak irabazten du».

Apirila eta maiatzeko klaseetan beraz, Lego Mindstorms kit robotikorekin dabilta. Echeverriak gaineratu duenez, bera ez da behin ere egon halako txapelketan, baina uste du polita izan daitekeela beste eskoletako ikasleek egiten duten lana ikustea. «Ikasleentzako motibazio bezala ere ondo funtzionatu dezake txapelketaren kontuak», dio.

Ieltxoko ikastaroak probatzeko aukera

Ikastaroak probatu nahi dituztenek izena eman behar dute maiatzaren 14tik 18ra.

Gustatuko ote zait ikastaroa? Zer egiten ote dute? Halako zalantzak sortzen dira batzutan ikastaroetan apuntatu aurretik eta hori horrela, herritarrei ikastaroa ezagutzeko edo probatzeko aukera eman nahi zaie, datorren ikasturtean apuntatu edo ez erabakitzeko. Interesa dutenek izena eman behar dute maiatzaren 14tik 18ra bitarte.

Klase bat

Irakasle bakoitzak klase egun bat zehaztuko du (maiatza bukaeran edo ekaina hasieran izango da).



Danel, Libe eta Elenek gitarra ikasten dute Alvaro Modregorekin.

Klase horretara ikusle bezala joango dira apuntatu direnak. Ikastaro eta irakasle bakoitzaren arabera, probatzeko aukera ere izango da.

12 ikastaro

Honako ikastaroak daude orain martxan: pianoa, trikitixa, panderoa, musika tailerra, gitarra, robotika, ingelesa, yoga, zumba, pila-

tes, hipopresiboak, euskal dantza (umeak eta helduak).

Jaialdia prestatzen

Bestalde, ikastaroetan dabilzan ume eta irakasleak kurtso bukaerako jaialdia prestatzen ari dira burubelarri. Ekainaren 22an izango da 16:30etatik aurrera, Eskolako areto nagusian.

Zeramikarekin lotutako hainbat ekintza

Mullita Fest antolatuko du Undermountek. Plazan eta Itsas Aurren ekintzak izango dira: zine emanaldiak, Tippi labea piztea eta kontzertua.

Undermounteko kideek Mullita Fest 2018 antolatu dute maiatzaren 24tik 27ra eta lehenengo edizio hau zeramikagintzan oinarrituko da. Lau egunetan zehar ekintza ugari antolatu dituzte, beti ere, zeramikarekin lotuta, eta ekintza horietako batzuk herriko plazan antolatzeko asmoa dute. Hain zuzen, zine emanaldiak (ostegun eta ostiralean), Tippi labea eraiki eta piztea (larunbatean) eta kontzertua (igandean) antolatuko dituzte plazan edo plazaren bueltan.

Klase magistralak eta bono desberdinak

Jaialdi honetara, punta-puntako zeramikariak, buztingileak, eta suaren inguruko artista eta ekintzaileak gonbidatuko dituzte. Nahi duenak

beraien klase magistralak jasotzeko aukera izango du.

Horretarako, bono desberdinak

jarri dituzte eskuragarri. Informazio gehiagorako edo izena emateko: mullitafest@gmail.com.

EGITARAUA

Maiatzak 24, osteguna

09:00-20:30 Egurrezko labea eraiki. Jaime Romero.

21:30 Zine zeramikoa **Itsas Aurren**.

21:30 Surami-K. Elsa Novelle eta Javier Olmo.

22:30 Ekintza (acción). Didi Heras.

Maiatzak 25, ostirala

10:00-13:00 Eskultura organikoak eraikitzea. Raffaella Pareja.

16:30-18:00 Gure lurretik. Juan Carlos Martin eta Toño Naharro.

18:00-19:30 Eskultura zeramikoa. Angel Garraza.

19:30 Zine zeramikoa **Itsas Aurren**.

Maiatzak 26 larunbata

10:00-13:00 Bilgarriak (envoltorios). Terras sigilatas. Avelino Carrasco.

16:30-19:30 Eskultura kaotiko modularra. Toño Perez.

20:00-23:00 Tippi labea piztea (egun osoan zehar eraikiko da labea) **Plazan**.

20:30 In progreso. Marcos Pacheco.

Maiatzak 27, igandea

10:00-12:00 Paper zeramikoarekin egindako orrien elaborazioa eta estanzazioa. Javier Ramos.

12:00-14:00 Sinbionteak. Txaro Marañon.

14:00 Buffalo. Kontzertua **Itsas Aurren**.

Urteko batzarra egin du Din Din elkarteak

Ohi bezala junta aldaketa izan zen eta horrez gain, hainbat erabaki hartu ziren: kuota igotzea, produktuen prezioak eguneratzea eta ikastaroren bat antolatzea.

Pasa den martxoaren 25ean urteko batzarra egin zuen Din Din elkarteak. Urtero bezala, batzarrekin batera junta aldaketa egin ohi da eta aurtengoan, Julen Areizaga, Mikel Altuna eta Iker Zinkunegi izan dira sartu direnak eta Eneko Dorronsoro, Anjel Altuna eta Garikoitz Galarraga berriz, atera direnak.

Bestalde, batzarrean iazko kon-tuak onartuta, aurtengo proposamen eta erabakiak planteatu ziren. Honako hauek izan ziren hartutako erabakiak: Erabiltzaileen Kuota igotzea erabaki zuten (iazko urtean jaitsi egin baitzen), beraz, aurtengo urtean bazkide direnek 1€ ordaindu beharko dute elkarte erabiltzeagatik eta bazkide ez direnek, berria: 2€. Elkarte eskaintzen diren produktuen prezioak urte askoan zehar ez direla berrikusi eta, aur-



Sartu berri diren hiru kideek eta atera direnek, besteak beste, afari bilera egin zuten.

ten prezioak eguneratzea erabaki dute, urteetan hasierako prezioak mantenduz produktuen marjena txikitzen joan baita eta prezioen eguneraketa hori eginaz, hasierako marjenak mantentzea espero dute. Ikastaroei dagokienean ere,

aurten saiakera berezi bat egiteko asmoa adierazi dute, aurreko urtean ez dela egin ikusirik.

Azkenik, Din Din elkarteak herriko beste ekintzetan parte hartu izana ere baloratu zuten, orokorrean ongi baloratu.

Javi eta Alberto izan dira Lapako irabazleak

Apirileko hiru ostirale-tan zehar, Lapa Txapelketa jokatu da eta Javi eta Alberto izan dira txapeldunak 607 punturekin. Azpitxapeldun izan dira Joxe eta Juan 377 punturekin. Hirugarren postuan, berriz, Laxaro eta Luisen geratu dira 371 punturekin eta laugarren, Oscar eta Juanjo 360 punturekin. 29 bat bikotek hartu dute parte Lapan.

Bestalde, urtariletik martxora Mus Txapelketa azkarrak jokatu ziren eta, gutxi-gorabehera, 25 bat bikotek hartu zuten parte saio bakoitzean.



19 bikote dabilta pelota txapelketetan

Iker Artanoren oroimenez jokatzen diren Igeldoko Pelota Txapelketak martxoaren 16an hasi ziren eta denera 19 bikote ari dira parte hartzen, modalitate desberdinetan. Eskuz 5 bikote ari dira, palaz teniseko pelotarekin 6 bikote, eta palaz mazizarekin 8 bikote. Finalak ekainaren 17an jokatuko dira. Mazizako finala 12:00etan izango da eta eskuzkoa eta tenisakoa 19:00etatik aurrera.

«Ez da epea bukatu eta 140 sinaduratik gora lortu ditugu»

Gure Esku Dagoko kideak sinadurak biltzen ari dira Igeldon galdeketa egin ahal izateko. Maiatzaren erdira arte ariko dira. Honako idatzia bidali dute deialdia eginez.

Gero eta gutxiago falta da egun handirako, Ekainak 17rako. Esan genuen, galdeketa egin ahal izateko herritarren %10ak sinatu behar zuela, 80 sinadura inguru, bada oraindik ez da sinatzeko epea bukatu eta 140tik gora sinadura lortu ditugu. Mila mila esker guztiei! Maiatza erdialdera arte egongo da sinatzeko aukera. Horretarako, igande eguerditan mahaia jarriko dugu. Bestela, igeldokogureeskudago@gmail.com emailera edo 688620771 telefonora idatzita ere egongo da sinatzeko aukera.

Giza katerako deia

Ekainaren 10ean ere zita garrantzitsua izango dugula gogorarazi nahi dugu, aspaldian egin den mobilizaziorik jendetsuena burutu nahi da. Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen giza kate erraldoia egingo da. Guri Donostiako kilometroa tokatu zaigunez, hain zuzen ere, Ibaetatik Antiguora doan kilometroa (Antiguo eta Ibaetarekin batera 800 pertsona lortzea da apustua), herritik denok batera oinez jaisteko deialdia egingo dugu. Mahaietan 5 euroren truk apuntatzeko aukera egongo da edo giza-katea.gureeskudago.eus. helbidean ere izena eman ahalko da.

Herritarren ordua da, Igeldon ere erabakitzea goaz!



Emakume afariaren ostean, argazkia atera zen ekimenari babesia eskainiz eta Ekainaren 17an galdeketa parte hartzeko dei eginez.



Lezkarriko kideek ere galdeketa parte hartzeko dei egiten dute.



Kooperatibako batzarraren ostean, herritar ugari eman zion babesia ekimenari.

Pilotegiko goiko zati osoa asfaltatuko dute

Proiektua oraindik ofizialki onartu gabe dago, baina horren arabera, goiko zatia berritzeko lanak egingo lirateke aurten eta pare bat zabalgunerak eta segurtasunerako barrera bat ere jarriko lirateke.

Herri Kontseiluaren eta herritarren eskaria kontuan hartuz (idatzi eta bilera desberdinen ostean), Pilotegi bideko goiko zatia asfaltatu egingo dutela jakinarazi du Donostiako Udaleko Mantenimendu saileko teknikariak. Prestatu duten proiektuan honakoa bildu dute: goitik hasi eta Ganbo Berriraino bidea asfaltatzea. Horrez gain, pare bat zabalgunerak egitea (kotxeak gurutzatzeko) eta hasierako zatian segurtasunerako barrera bat jartzea "quitamiedos"

modukoa.

Aurrekontuari dagokionez, 77.000 eurokoa da. Diputazioak 37.000 euroko diru laguntza emango du eta Donostiako Udalak 40.000 euro jarriko ditu. Eskatu zezaketen gehiena eskatu dutela azaldu du teknikariak.

Proiektua oraindik ofizialki onartu gabe dago eta ez dute zehaztu noiz onartuko duten. Beraz, emandako hitza beteko duten jakiteko, itxaron egin beharko da proiektua eskuarte-

an izan arte. Esandakoaren arabera, lanak aurten hasiko lirateke.

Beheko zatian, hainbat kontu

Beheko zatiko lanak bukatzeko, Aristondo eta Aristegieta arteko zatia asfaltatzea falta zen eta hori eginda, bukatutzat eman dituzte lanak. Dena dela, ur-bide bateko tubo ondo garbitu gabe utzi dutela abixatu zaie eta baita Aristegieta eta Zelai Eder artean dagoen zuloa ez dutela tapatu. Lan horiek egitekoak dira.

Zaborra behar den lekuan uzteko deia

Eskonbroak eta halako hondakinak ezin direla kontenedoreetan bota edo aldamenean utzi gogorarazi du Herri Kontseiluak.

Zaborrarekin hainbat arazo sortzen ari dira azken aldian, herritar batzuk nahi dutena eta nahi duten lekuan uzten dutelako. Herri Kontseiluak gogorarazi nahi du, hasteko, hondakinak bereizi egin behar direla eta ondoren, hondakin jakin bakoitzak dagokion lekuan utzi behar dela. Eta kontenedoreetan utzi ezin daitekeena, Garbigunera eraman behar dela.

Iturrietan, zabor pilaketa

Herriko hainbat puntutan, zabor pilaketak sortzen dira, esan bezala, herritar batzuk utzi behar ez den hondakina uzten dutelako bertan. Maiz, Iturrietako kontenedoreetan gertatzen da hori. Zenbait herritarrek eskonbroak eta antzekoak utzi izan dituzte eta hantxe egon izan dira egunetan, udaletxeak berez ez dituelako halako hondakinak jaso-



Iturrietako kontenedoreetan eskonbroa eta bestelako hondakinak botatzen ditu jendeak.

erantzun dute Udaletik. Dena dela, askotan hondakin gehiegi izaten dela eta kamioia beteta egoten denez, ezin izaten dutela Igeldotik pasa adierazi dute.

Neurriak hartzen

Partehartzeko zinegotziarekin ere landu da gaia eta Udalak neurri hauek hartzea erabaki du: Udaltzainek zorrotzago jokatzeko eta isunak jartzen hastea.

tzen. Beraz, eskaera argia egiten die Herri Kontseiluak herritarrei: halako hondakinak dagokion lekura eramateko; esaterako, Garbigunera.

Bestalde, hainbatetan Udaletik bildu behar dutena bildu gabe gertatu izan dela ere salatu du Herri Kontseiluak. Kontuan izango dutela

Altzari handiak, hiru egunetan

Bestalde, Herri Kontseiluak gogorarazi nahi du altzari handiak ateratzeko hiru egun daudela Igeldon: astelehen, asteazken eta ostiral (21:30-22:30). Zalantzak izanez gero, deitu: 943 48 10 38.

Herri Batzarra egingo du Herri Kontseiluak ekainean

Herri Kontseiluak eskuartean dituen gai, proiektu, eskaera eta informazioaren berri emateko, Herri Batzarra egingo du ekainaren 3an, igandea. Goizeko 11:00etatik aurrera izango da, Itsas Aurren. Ondoren hamaiketako izango da.

Honako gaien inguruko informazioa emango dute, besteak beste: herrian zehar prestatutako ibilbideak, Kooperatibari egindako proposamena, panel informatiboak bertzeaz, 3. adinekoentzako saio dinamikoak, armarria aukeratzeari, partehartze prozesua...

Igeldori buruzko informazio guztia, web orrian

Aurreko Orri Informatiboan azaldu zen bezala, herriko web orria martxan dago martxoaz geroztik: igeldo.eus. Bertan, Igeldori buruzko ia informazio guztia aurkitu daiteke: albisteak, deialdiak, informazioa, argazki berri eta zaharrak, azken Orri Informatiboa eta garai bateko aleak... Horrez gain, iruzkinak egiteko aukera ere badago.

Eta sare sozialetan ere jarraitu daiteke: Facebooken (Igeldo Udallerria) eta Twitterren (@IgeldokoHk). Interesa dutenek egin dezatela lagun eksaera edo egin daitezela jarraitzaile.

Bestalde, web orria hobetzeko bidean, Herri Kontseiluak gustora jasoko ditu herriarren proposamenak. Beraz, animatu!

Hainbat eskaera, Partaidetzako zinegotziari

Apirilaren 11n elkartu ziren eta honako gaiak landu zituzten: Informazioa eta harremana, errepideen egoera, Eskola Zaharra eta partehartze prozesua, herri lurak, garraioa, ur-hornidura, espaloia...

Herri Kontseilua Duñike Agirrezabalaga Donostiako Udaleko Herri Partaidetzako zinegotziarekin elkartu zen apirilaren 11n. Bi urte eta erdi paseak ziren zinegotzia Herri Kontseiluarekin azkenekoz bildu zenetik, eta ordutik gauza askok berdin jarraitzen dutela gogorarazi zien Herri Kontseiluko kideek. Aurrerapauso askorik ez dutela ikusi, alegia. Udalarekin dagoen harreman eza ere salatu zuten eta bere garaian Udal Gobernu berriak Igeldorekiko trataera berezia izango zuela gogorarazi. Herri Kontseiluak eskatu zuen Partaidetzako zerbitzuarekin bilerak maiztasun batekin egitea eta baita Udal Gobernuarekin ere, aurreko legegintzaldian egiten zen bezala. Eta horrez gain, Igeldori buruzko informazio guztiaren berri emateko eta edozein plan edo proiektu egin aurretik harremanetan jartzeko.

Ur-bideak garbitzeko beharra

Errepide nagusiaren eta herri bideen egoerari buruz ere hitz egin zuten. Herri Kontseiluak eskatzen du urtekako proiektua prestatzeko, diru partida batekin, eta konponbide integral bat emateko (idatzi bat ere sartu zen erregistroan).

Ur-bideak garbitu eta behar diren lekuan egokitzearen beharra ere azpimarratu zuten Herri Kontseiluko kideek. Ura behar bezala bideratzen ez delako hondatzen direla hainbeste bideak azaldu zuten. Eta bide bazterrak garbitzen dituztenean, ur-bideak txukuntzea ere kontuan

hartu behar dutela gaineratu zuten.

Malden egonkortasunari begira ere, zerbait egin behar dela adierazi zioten zinegotziari.

Dena dela, gai hauen inguruan aurrerapauso batzuk ematea lortu du Herri Kontseiluak Mantentze eta Zerbitzuetako teknikariarekin bildu ostean.

Eskola Zaharrean, oinarrizko lanak egitea orain

Eskola Zaharraren inguruan ez ezik, orokorrean Igeldoren inguruan partehartze prozesu bat martxan dagoela azaldu zien Herri Kontseiluko kideek. Bertatik ateratzen diren eskaerak, herritarren nahiak, kontuan hartzeko eta errespetatzeko eskatu zien. Eta bitartean, Eskola Zaharraren barruan, oinarrizko lan batzuk egiteko, erabilgarri izan dadin. Udalak emaitzak aztertu eta proposamenak entzungo dituela azaldu du.

Mendizorrotzeko plana, zati batean aurrera

Herri lurren inguruan, Mendizorrotzeko kudeaketa plana osatu zuen Udalak. Zati batean, abereak sartzea erabaki da suteen kontrako neurri bezala, ingurua garbi mantentzeko aukera eraginkorrena ikusten delako. Zati horri dagokionean, Udala eta Behemendi hitzarmena sinatzekoak dira. Udalak itxiturak jarriko ditu eta Behemendik ura edateko puntuak. Abereak, berriz, herriko abeltzainek sartuko dituzte. Maiatza hasieran hitzordua jarri dute

Igeldon, pausoak ematen hasteko.

Herri Kontseiluaren ustez, hainbat zehaztapen falta dira eremu horri dagokionean, eta baita plan osoari dagokionean ere. Jakin duenez, oraindik onartu gabe dago plan osoa eta Udaleko ingurumen teknikariek biltzekoa da maiatzean, hainbat gauza zehaztu eta argitzeko.

Autobus zerbitzua hobetzea

Egungo autobus zerbitzuak ez dituela igeldotarren beharrak asetzen azpimarratu zuen Herri Kontseiluak. Bere eskaera da egungo autobusa lehenago hastea Igeldotik, hau da, gutxienez 07:00etan hastea Igeldotik. Eta nekazal inguruko baserri eta etxetarako Behemendiren zerbitzua eskaintzea (taxi zerbitzu modukoa). Zerbitzu honek 10.000 euroko aurrekontua besterik ez luke izango Udalarentzat, Usurbilgo zerbitzuarekin uztartuko litzatekeelako. Bere garaian Udaleko Mugikortasun sailak ez zuen onartu eta berriz kontuan hartzeko eta martxan jartzeko eskatu du Herri Kontseiluak.

Espaloiarekin borrokan

Espaloiaren gaia atera zien Herri Kontseiluko kideek zinegotziari.

BEHEMENDIREN ZERBITZUA

Landagunean bizi diren adinekoak eta mugikortasun arazoak dituztenak Donostiaraino joan-etorria egiteko garraio zerbitzua litzateke.

Landaguneko bideetan ibiltzeko proposa den ibilgailua jarriko litzateke, mugitzeko arazoak dituzten pertsonak garraiatzeko egokitutakoa.

Igeldo, Igara, Añorga eta Zubietako nekazal eremuan bizi den edonork izango luke zerbitzua eskatzeko aukera. Zerbitzua alde aurretik eskatu beharko litzateke eta jasotzerakoan, adineko jendeak eta mugitzeko zailtasunak dituztenek izango lukete lehentasuna. Baina, esan bezala, zerbitzua zabalik egongo litzateke.

Zerbitzuaren helburua da zerbitzu publikorik iristen ez den guneei zerbitzua eskaintzea.

Ez litzateke doako zerbitzua izango.

Printzipioz, Dbus eta Lurraldebus zerbitzuekin batera ezartzen diren tarifa berdinak ezarriko lirateke.

Herri Kontseiluaren arabera, aurreneko pausoa litzateke inguru horietan garraio zerbitzua hobetzeko, «aurrera begira alternatiba berriak martxan jartzea ekar dezakeena: minibus zerbitzua, adibidez».

Kaskotik kanpinerraino gutxienez, espaloia behar beharrezkoa dela gogorazi zien. Gaiari bai edo bai heldu behar diola Udalak esan zien. Milioi bat euro inguruko kostua du espaloia egiteak eta dirua da ez egitearen arrazoia Herri Kontseiluaren ustez. Beste alternatiba batzuk ere proposatu ditu Herri Kontseiluak, zatika egitearena, adibidez.

Biorretatik gora, ur-sarerik ez

Igeldon bada oraindik ur hornidurarik ez duen zonalde bat: Biorretatik gorakoa. Oinarrizko zerbitzu bat izanik, zerbait egin beharra azaldu du Herri Kontseiluak, zerbitzu hori eskaintzeko bertako bizilagunei.

Kontuan hartu eta erantzuna ematen saiatu

Aipatutako gai horiez gain, beste hainbat ere landu zituzten: baserri eta etheen seinalizazioa, mendi suteen protokoloa, plazako eta komunitateko irisgarritasuna, zabor bilketa, bidegurutze bateko ispilua, kultur etxeko fatxada berritzea...

Azaldutako gai eta eskaera guztiak kontuan hartu eta erantzuna ematen saiatuko direla azaldu zuen Agirrezabalagak.

Garraioaren eta espaloiaren inguruko mozioei ezezkoa, Donostiako Udalak

Udaletik jaramonik egiten ez dutela ikusita, Herri Kontseiluak erabaki zuen eskaera guztiak Udal erregistroan sartzea eta baita oposizioko alderdiei zabaltzea ere. Garraioaren (autobus zerbitzua) eta espaloiaren gaien inguruan, besteak beste, EH Bilduk eta Irabazik eskaerak egin dituzte. Martxoko plenoan, esaterako, Irabazik mozio bana aurkeztu zuen eta ez ziren onartu EAJ-PNV, PSE eta PPren kontrako botoekin. Irabazik eta EH Bilduk alde bozkatu zuten.

Mozio horietan honakoa eskatzen zen:

Espaloiari lotuta, Udalak berriz aztertu dezala proiektua, ahalik eta azkarren, eta bere esku dauden aukera guztiak baliatzeko: bere garaian baimena eman ez zuen jabearekin negoziatzea edo beharrezko metroak desjabetzea edo espaloiaren zati bat bakarrik egitea. Udal Gobernuak ezetz bozkatzearen arrazoia izan zen, jabeago pribatuaz ari garela eta ezin dela ezer egin.

Garraioari lotuta: Udalak aztertu eta diseinatu dezala igeldotarrei behar bezala erantzungo dien mugikortasun zerbitzu integral bat, Behemendiren zerbitzua kontuan hartuz, besteak beste. Eta 2004an egin zuten galdeketa egin dezatela berriz, baina igeldotar guztiei, ez autobus erabiltzaile batzuei bakarrik.

EH Bilduk ere zentzu berean hitz egin zuen eta galdeketa hartatik 14 urte pasa direnez, egungo egoera aztertu eta erantzuna horri eman behar zaiola gaineratu zuen.

Udal Gobernuak ordezkarriak adierazi zuen galdeketa berriz egingo balitz, erantzuna bera izango litzatekeela: «Jendeak nahiago du ibilbide luzea, zentrorra eramanez». Ordu aldaketari dagokionez, auzo askoren eskaria dela eta sare osoa aztertu ondoren jarri behar direla lehentasunak azaldu zuen. Behemendiren zerbitzuari buruz ez zuen ezer esan.

Errepide nagusia eta herri bideak hobetzeko, bilera egin da teknikariarekin

Azken hilabetean, hainbat herri bide garbitzen ari dira eskuz. Bestalde, Aita Orkolaga bidea asfaltatuko dute kanpinetik Biorretaraino.

Apirilaren 18an, Donostiako Udaleko Mantentze eta Zerbitzuetako teknikariarekin bildu zen Herri Kontseilua. Errepide nagusia eta herri bideak hobetzeko hainbat eskaera egin zizkion, besteak beste. Honako abisuak pasa zizkion: Agiti bideko zuloak tapatzeko, Polipasoko konkorraren aurreko zuloa, Lizardiko aldapako zuloa, Buena Vistatik Tximistarrirako bideko espaloia garbitzeko, Gudamendiko aldapa hasieran sortzen den putzuari konponbidea emateko, Etxe Nagusi parean dagoen saltoa seinalizatzeko, Iturritxo iturriko bidea irekitzeko... Ahalik eta azkarren erantzutekotan geratu dira.

Bestalde, azken hilabetean hainbat herri bide garbitzen ari direla azaldu zuen teknikariak. Bost laguneko bi talde ari dira. Eskuz ari dira, atxurrekin, ur-bideak eta behar bezala garbitzen. Hiru hilabete eta erdiz ari dira denera eta tarte horretan egin dezaketena egingo dute. Honako bideak behintzat garbituko dituzte: Pilotegi, Igara, Tximistarri, Marabieta, Arritxulo, Txalin, Bustinzuri, Agiti, Iturrieta eta Gudamendi.

Horrez gain, Aita Orkolaga bidea asfaltatuko dutela jakinarazi zuen. Zehazki, kanpinetik Biorretara.

Leku Eder eta Sirenako malkarrak

Leku Eder inguruan eta Sirena parean, bide bazterretako malkarretan lur-jausiak izan ziren orain dela hilabete batzuk. Leku Ederren garbiketa lanak egin zituzten, zuhaitz-ipurdiak bertan utziz, eta momentuz egonkor dago. Dena dela, zati batzuk zalantzan geratu



Sirena frenteko malda egonkortzeko lanetan.

Hiru hilabete eta erdiz ariko dira bideak garbitzen.

Pilotegi, Igara, Tximistarri, Marabieta, Arritxulo, Txalin, Bustinzuri, Agiti, Iturrieta eta Gudamendi garbituko dituzte, behintzat.

zirela eta, azterketa egin du geologo aditu batek eta aktuazio bat egitekoak dira. Teknikariak ez zuen azaldu ez zer egingo duten ez noiz.

Sirenakoari dagokionean, malkar hori ere garbitu zuten, baina geologoek ikusi ostean ez zegoela seguru adierazi zuten. Konponbide egokienaren bila dabilzala azaldu du teknikariak eta ahalik eta azkarren erantzuten saiatuko direla. Bitartean, semaforoa egongo da

(Orri Informatiboa bukatzeaz zela, malda egonkortzeko lanetan ari ziren).

Bentalegreko kruzeari soluzioa

Azken asteetan, sustoren bat edo beste izan da Bentalegreko kruzean eta lehendik ere jakina zen ez dela oso kruze segurua. Hori horrela, zerbait egin beharra adierazi zion Herri Kontseiluak Udal teknikariari. Lehen, abiadura motteltzeko konkorrak zeudela azaldu zion, baina Klasikarekin kendu egin zituztela eta ez dituztela berriz jarri. Konkor dobleak jartzeko proposamena egin du Herri Kontseiluak, errepide osoa hartuz alderik alde, jendeak konkorra saihesteko beste karrilera pasatzeko joera baitu bestela. Gaia Mugikortasun sailera bideratuko duela azaldu zuen teknikariak.

Emandako azken pausoak azaldu zituen Kooperatibak batzarrean

Bideragarritasun plana egin da eta kalkuluen arabera, bigarren urte bukaeran irabaziak emango lituzke proiektuak. Obrari dagokionean, lurra prestatuta, arotz lanak egin eta leihoak jarriko dira orain. Bestalde, aurtengo Udaberri Jaia berezia izango da.

Kooperatibaren batzarra izan zen apirilaren 22an eta emandako azken pausoen berri eman zien bazkideei. 42 bazkide elkartu ziren. Azaldutako pausoetako bat izan zen bideragarritasun plana egin dela eta kalkuluen arabera, denda irekita, bigarren urtearen bukaeran irabaziak lortzen hasiko liratekeela. Plan horren arabera, egokiena seina orduz ariko diren bi langile kontratatzea ikusten dute eta kontsumoa dela gakoa. Beraz, hasierako urterako kontsumo-kuota bat ezartzea proposatu dute (hilean 30 eurokoa), proiektua martxan jartzeko beharrezkoa, baina lehenengo urtea pasata, kuotarik ez izatea da asmoa. Kuota hori egun daukaten finantziazioaren arabera kalkulatu da, baina denda irekitzerakoan hobeto zehaztuko dute. Izan ere, lortzen duten finantziazioaren baitan aldatu daiteke.

Bideragarritasun plana prestatuta, diru laguntza bat ere eskatu da Eusko Jaurilaritzan. Udara ingururako aterako da ebazpena.

Kuota ordaintzeko momentua
Bazkide berriek aurreko bazkideekin parekatzeko, 500 euroko kuota ordaindu behar dute eta batzarrean azaldu zuten maiatzaren hasiko direla kobraketekin. Kontu korrante zenbakia pasako dute orain, kolpera 500 euroak ordaintzeko asmoa dutenentzat. Maiatzaren 15erako ordaindu beharko dute horiek. Urte osoan zehar, hilabeteka ordaindu nahi dutenek berriz, beraien kontu korrantea eman



42 bazkide elkartu ziren batzarrean.

“ Hasierako urterako kontsumo-kuota bat proposatzen dugu, baina hortik aurrera kuotarik gabeko sistemarekin funtzionatzea da asmoa ”

beharko diete Kooperatibako kideei. Eta bi zatitan ordaindu nahi dutenek ere, gauza bera.

Ekarpen-bonoak interesekin
Bankuari dirua eskatu beharrean, 250 euroko ekarpen bonoen sistema ere planteatu zuten aurreneko batzarrean. Azken batzarrean azaldu zutenenez, legearen arabera, bazkideek ekarpenak egiten badituzte, interesekin itzuli behar zaie dirua; bazkide ez direnei ez. Hala ere, proposatu zuten denei intere-

sekin itzultzea, baina kopuru hori eskura bueltatu beharrean, kontsumorako uztea. Dirua itzultzen, berriz, hirugarren urte ekonomikoaren ostean hasiko lirateke. Eta 250eko bono bakoitzeko, urtero 50 euro itzuliko lukete, dena batera itzultzea ezinezkoa izango baita. Bazkideek begi onez ikusi zuten proposamena.

Herri Kontseiluaren proposamenari erantzunez
Proiekturako 15.000 euro emateko prest zegoela azaldu zion Herri Kontseiluak Kooperatibari, beti ere, baldintza batzuk onartu eta bermatzen baziren. Eskaera horri erantzunez, honako proposamenak daukate Kooperatibako kideek:
- Denda irekia izango da, bazkide ez direnek erosteko aukera izango dute, eta hori herri guztiari begirakoa da.

- Igeldoko ekoizleak lehenetsiko ditugu.
 - Bertako hornitzaile eta gremioak lehenetsiko ditugu.
 - Kooperatibako langileak kontratatzerakoan, Igeldotik abiatuko gara beti.
 - Etxez etxeko zerbitzua jarriko dugu dendara gerturatzeko zailtasunak daukatenentzat: helduak, ezinduak...
 - Irabaziak izaten hasten garenean, batzarrak izango du azken hitza, baina beti buruan izango dugu herrian inbertitzea zerbait.
- Proposamen hauek Herri Kontseiluari azalduko zaizkio eta ondoren batzar batean erabakiko da onartu edo ez.

Lehenengo pisuko lurra, ia prest

Apirilean zehar, bi auzolan egun egin dira eta oso produktiboak izan direla azaldu zuten. Lurrean, grabila gainean, plastikoa jarri da eta hormigoia botatzea bakarrik falta da (berehala egitekoak dira). Modifikazio txiki batzuk ere egin zituzten, tuberi eta drenaje kontuetan. Baita trasteak atera eta eraikina txukundu ere.

Hurrengo eginbeharrak lirateke, egurrezko estrukturak landu eta jarri (lehenengo pisuko lurra jarri, posteak txukundu eta lijatu, atek jarri...); eta baita leihoak ere. Lantaldean lantzen ari dira ze material jarri eta aurrekontuak eskatzen. Auzolan eguna antolatuko dute ondoren.

Auzolanak hobeto antolatzeko, abixatu

Egindako bi auzolanetan izandako erantzunarekin gustora daude eta asko eskertzen dute jendearen laguntza. Dena dela, hobeto antolatzeko, aurretik abixatzea komeni dela azpimarratu dute eta hurrengoan kontuan hartzeko dei egin dute. Dagoeneko, zerrenda bat prest dute dauden lanekin eta norbera ondoen moldatuko den zereginean apuntatzeko aukera dago.

“ Denda honako lau ezaugarri definituko dute: osasungarria, bertako produktuak, justua eta eskaintza zabala ”

Hasieratik, produktu guztiak

Dendaren izaera definitzen ere eman dituzte pausoak eta honako lau ezaugarri izango lituzke: osasungarria (helburu horrekin ekologikoak garrantzia izango du); bertako produktuak izatea (Igeldo eta ingurukoak); justua (ekoizleen eta erosleentzako prezio duinak); eskaintza zabala (aste osoko erosketa bertan egiteko aukera).

Azken ideia horri erantzunez, hasiera hasieratik honako produktuak jartzea aurreikusten dute: freskoak (barazkiak, frutak, haragia, arraina...), esnekiak (esnea, gazta, yogurrak...), izoztuak (haragia, arraina, barazkiak, izozkiak...), begetarianoa, sukaldekoak (arroza, pasta, lekaleak...), kontserbak, edariak, higiena eta garbitasuna, baserria (landareak, tresnak...) eta maskotak.

Zentzu honetan, pausoak ematen joateko, antzeko proiektuak dituzten elkarte eta kooperatibekin harremanetan jarri dira: Usurbilgo Kooperatiba, Ereindajan (Arrasate) eta Labore (Oiartzun).

“ Landare, lore, zuhaitz eta zuhaixka azoka “potente” bat antolatuko da Udaberri Jaian eta kanpoko jende asko gerturatzea ere espero da ”

Sekulako azoka, Udaberri Jaian

Aurtego Udaberri Jaia maiatzeko 12-13 asteburuan izango da eta zerbait berezia egin nahi izan

dutela azaldu zuten batzarrean. Orain arte festa antolatzeaz arduratu den taldeaz gain, Kooperatibako komunikazio taldeko kide batzuk ere aritu dira antolaketan lanetan eta proiektua herrian eta kanpora zabaltzeko aukera ederra dela ikusten dute. Baita diru iturria ere. Hori horrela landare, lore, zuhaitz eta zuhaixka azoka «potente bat» antolatu dute, besteak beste.

Gainera, sindikatuko lurra jarri ta egongo da ordurako eta gune hori ere baliatuko dute. Barrikotea egingo da bertan eta azokaren parte bat ere han jarriko da. Horrez gain, tragoak hartzeko barra ere egongo da. Turnoetarako jendea beharko dela azpimarratu zuten.

Komunikazioa hobetzeko lanean

Komunikazioaren aldetik, zer hobetua badela azaldu zuten Kooperatibako kideek eta lanean ari direla. Deialdien berri ematerako garaian, adibidez, ez dute asmatu denengana ondo iristen eta emailaz gain, telefono bidez ere egin beharko direla deialdiak ikusten dute.

Bestalde, kanpora begirako komunikazioa ere lantzen ari dira: proiektua zabaldu, bazkide berriak lortu, crowdfunding kanpaina abiatu (dirua biltzeko), ekintza berriak antolatu eta daudenak indartu...

Marka-logoa, diseinua, izena... landu beharreko kontuak direla ere gaineratu zuten. Hurrengo batzar baterako utzi zuten, baina bitartean, bazkideek badute proposamenak egiteko aukera: igeldokokooperatiba@gmail.com.

Hurrengo batzarra, ekainean

Aipatutako ideia asko proposamenak dira eta lantaldeetan lantzen eta zehazten joango dira orain. Hurrengo batzarrean aztertuko dituzte berriz. Hurrengo batzar hori ekainean izango da (eguna ez dute zehaztu).



POLBOETXE edo POLBORETXE

“Zerutxo” bezela ezagutzen den kurban zegoen baseria. Baserriaren ondoan harrobi bat izan omen zen eta harrobia martxan zegoen bitartean, harrobiko lan-tresnak eta polbora edo dinamita gordetzen zuten bertan (hortik dator kio izena, polbo-etxe edo polboretxe). Baserri hau eta bere terrenoak, goraxeago zegoen Mugitza baserriaren parte ziren. Harrobia itxi ondoren, 2 familia bizi izan ziren bertan. Zati batean, Betelutik etorritako artzaina, Jose Mari Estanga Tolaretxeko Katalina Mitxelenarekin ezkondu, eta bertan jarri ziren bizitzen; eta bestean, Garmendia-Izagirre familia. Baserriaren atzealdean iturri bat zegoen, Arburutik beheara jaisten den erreka ura pilatzen zen bertan eta inguruko auzokideek garbileku moduan erabiltzen zuten. Bertara joaten ziren gobara egitera.

Oraingo alean atal berri batekin gatoz. Herriko argazki zaharrak plazaratu nahi ditugu bertan. Herriko historia eta istorioak kontatuz, zer hitz egin eta pentsatua emanaz. Gure asmoa herriarekin lotura duten mota ezberdinetako argazkiak jartzea da, eta bide batez, zure etxe-ko bazterrak astintzea ere eskatu nahi dizugu, interesgarriak izan daitezkeen argazki zaharrak dituzun begiratu eta gurekin konpartitzeko. Guztion artean lan polita egin baitezakegu. Animatu!

Argazkiak pasatzeko deitu 627 756 185 (Jabier), 645 735 762 (Larraitx) edo emailaz bidali igeldokoorria@gmail.com helbidera.



EZAGUTZEN AL DUZU BATEN BAT?

Estanga-Mitxelena familiako kideak iturri ondoan. "Goarriyak" (gobara egiteko edo arropa garbitzeko harriak) aldamenean ikus daitezke.

TXIRRINDULARITZA - ONDITZ URRUZMENDI:

«Nire helburua sprinera iristen diren karrerak lehiatu eta irabaztea da»

22 urteko txirrindulari igeldoarra da Onditz Urruzmendi. Afizionatutan, 23 urtez azpiko mailan dabil, Eibar Energia Hiria taldean. 2010 urtetik, infantil mailatik, txirrindularitzan dabil bere anaiak erosi zuen bizikleta bat tarteko (2011ko

martxoko Orri Informatiboan elkarrizketa egin genion). Momentu honetan, karreterako denboraldian dabil eta denboraldia ezin hobeto hasi du, Zumaian jokatu zen aurreneko karrera irabaziz, hain zuzen.

Hasteko, zorionak. Zumaiaiko karrera irabazi zenuen otsailan, karreterako denboraldiko aurreneko lasterketa. Zer izan da zuretzat?

Bai, eskerrik asko. Beti da pozgarria lehen lasterketa irabaztea, gainera, aurreko urtea oso txarra izan zen. Nire aldetik dena jarri nuen, baina gauzak oso gaizki irten ziren eta urte oso txarra izan zen niretzat.

Horregatik, Zumaian lehen postuan marra pasatzean, pisu handia kendu nuen gaineratik. Lehenengo karrera zen, eta jakinda aukera asko ez ditudala izango urtean zehar, egun hartan aukerekin ikusten nintzen, maila ona neukala banekielako. Egia esan, karreraren egunean dena ondo atera zen eta orain arteko garaipenik garrantzitsuena izan da niretzat zalantzarik gabe. Jubeniletan lortutako pistako Espainiako txapelketen aurretik.

Hori ikusita, eta ondorengo karrerak kontuan hartuz, ze balorazio egiten duzu eta ze erronka dituzu aurrera begira?

Denboraldiaren hasierako zatirako, begiz jota 3 karrera nituen batez ere. Bat Zumaiakoa zen eta dena ongi atera zen, baina aukera asko eduki nezakeen beste karrera bate-



Onditz Urruzmendi erdian, Zumaiaiko lasterketa irabazita. // Argazkia: Martin Early.

“ Nafarroako Itzulian etapa lau bat dago eta maila oso altua izango den arren, etapa disputatzea da nire helburua ”

an gauzak ez ziren nahi bezala atera eta karrera disputatzeko aukerarik gabe geratu nintzen, nahiz eta nire maila ona izan. Hirugarrena, Amorebietako lasterketa zen. Aurreko urtean 3garren amaitu nuen eta karrera disputa-

tzeko aukerekin ikusten nintzen, baina ibilbidea aldatu eta gogortu egin zuten eta karrera disputatzeko aukerarik gabe izan nintzen.

Orain, ez dut karrera egoki gehiegirik, baina aldapa gora ere maila txukuna ematen ari naiz, eta nire mailarekin oso gustura nago. Naizen korredore mota izanda, nire helburua sprinera iristen diren karrerak lehiatu eta irabaztea da. Ondorengo karrerari begiratuta, apirila bukaeran Bizkaiako Itzulia daukagu, ondoren Bidasoakoa eta azkenik Nafarroakoa. Azken honetan, etapa lau bat dago eta bertan ahal den maila onenean egotea

gustatuko litzaidake. Maila oso altua izango da bertan eta etapa laua disputatzea da nire helburua. Esan bezala, apirila bukaeran hasi eta maiatza bukaera arte konpetizio egun asko pilatuko ditugu.

Ondoren, itzuli horiek ematen duten forma aprobetxatzen saiatuko naiz ekainean dauden beste karreretak. Honen ostean, geldialdi txiki bat egingo dut ekaina bukaeran. Indarrak hartu eta abuztu erdialdean, batez ere, eta iraileko azken karreretan, berriz ere forma onean egotea espero dut denboraldia ondo amaitzeko. Izan ere, abuztuan sprinera iritsiko den karreraren bat izango da.

Aurretik, pistako denboraldia izan duzue. Zer moduz joan da?

Nik betidanik lehiatu dut pistan eta gaztetan emaitza onenak bertan nituen, batez ere pistan zentratu nintzelako. Hala ere, aurten asmo garbia nuen nire prestakuntza errepideari begira egingo nuela ahalik eta forma hobereanean, eta hortaz, pista, karretera prestatzeko erabili dut. Leihaketa guztiak ez ditut egin eta egin ditudanak karreterako prestakuntzaren barnean. Beraz, pistako denboraldia nahi nuen bezala joan zen, pixkanaka karreterarako forma lortuz eta ezusteko inongo arazorik gabe.

Orokorrean ze asmo dituzu txirrindularitzarekin?

Txirrindularitzarekin nire ametsa profesioaletara pasatzea izan da txiki-txikitatik. Aurten, nire 23 urtez azpiko azken urtea da eta profesioaletara pasatzeko aukerarik ez badut, ez dut uste bizikletan jarraituko dudunik.

Zaila da profesioaletara pasatzea, azkenean txirrindulari asko gaude eta leku gutxi, baina esperantza inoiz ez da galdu behar. Beti ere dauden aukerak kontuan izanda eta pasatzeko aukerarik edukiko ez banu, nire bizitzako beste etapa bat hasiko zen.

Euskadiko Federazioak 26 urte

“ Profesioaletara pasatzeko aukerarik ez badut, ez dut uste bizikletan jarraituko dudunik ”

arte konpetitzeko aukera ematen du, hortaz, elite mailan jarraitzeko arazorik ez dago. Adinarengatik afizionatutan jarraitzeko inolako arazorik ez nuke izango, baina gaur egun behintzat ez dut elite kategorian lehiatzen ikusten nire burua.

Esan liteke zure ezaugarriak kontuan hartuta, sprinter eta errodatzailea zarela?

Bai, betidanik izan naiz txirrindulari azkarra eta ordekan ere ondo moldatu izan naiz. Hala ere, aurten inoiz baino hobeto sprintatzen ari naiz. Nire pisua dela eta, kosta egiten zait aldapa gogorretan aurrean ibiltzea, baina formaz ondo nagoeanean nahiko maila txukuna daukat aldapa gora, eta taldetxoak iristen direnean helmugara, tartean iristeko gai ikusten naiz.

“ Apenas dago karrerarik sprinera iristen denik hemen. Profesioaletan ere ez da ia sprinter edo ordekan ondo ibiltzen den euskaldunik ikusten ”

Euskal Herrian ezaugarri horietako txirrindulariak gutxiago baloratzen dira. Hemen, igotzaileak eta itzulietan ondo ibiltzen direnak baloratzen dira. Zure ezaugarriekin, Euskal Herrian beharrezkoan, Europa iparrean jaio izan bazina, aukera gehiago izango zenituzkeela iruditzen zaizu?

Egia da nire profileko txirrindula-

riak ez garela askotan behar bezala baloratuak, kasu askotan baita bertako taldeengatik ere. Horrek arazo bat ekartzen du: jende azkarra badago hemen ere, baina karrera gehienak gogorrak izanda, sprinter horiek eskalatzaile bihurtzera behartuta ikusten dira. Eta pena bat da, azkenean, apenas dago karrerarik sprinera iristen denik hemen. Horrela, profesioaletan ere ez da ia sprinter edo ordekan ondo ibiltzen den euskaldunik ikusten. Zoritxarrez, afizionatutan perfil hori duten txirrindulariek askotan ez dute destakatzen eta pasatzeko aukerarik ez dute izaten.

Argi dago, lekuaren arabera karrerak asko aldatzen direla eta korredore perfilagatik hala behar-ko lukela. Hala ere, oso zaila da jakitea beste nonbait jaiotz gero nolako bilakaera izango nuen. Argi dudana da gustatuko litzaidakela Europa iparraldeko beste txirrindularitza mota bat ezagutzea. Korritzeko oso modu ezberdina izaten da eta perfilak ere oso desberdinak dira hemengoekin. Hala ere, esan beharra daukat 23 urtez azpiko kategorian aritzen garen txirrindulariok hemen kalendario oparoa izaten dugula, konpetizio egun askorekin.

Bukatzeke, entrenamenduen ondoren beti Igeldo igo behar eta sprinterra izan. Ez al da paradajikoa?

Bai, gauza arraro samarra da. Batez ere, entrenamenduak amaitzerako orduan nabaritzen da. Ohikoena, entrenamenduaren amaierako minutuak lasai egitea izaten da, hankak askatzeko, baina Igeldo igo beharrak ez dituzten nahi bezain lasai hankak askatzen. Hala ere, gehienetan oso lasai egiten dut etxerako igotzera eta ez da hainbesteko arazoa izaten. Okerragoa izaten da euria eta hotza egiten duen egunetan aldapa behera ateratzea entrenatzen, erabat hoztuta geratzen zara eta.

GOMA GAINEKO SOKATIRA MUNDIALA TXINAN - JOXE MARI URANGA:



Joxe Mari Uranga zagero lanetan, Ibarrako gainerako taldekideekin.

Dominak eskuratuta, Txinatik buelta

Martxoaren hasieran goma gaineko sokatira mundiala izan zen Xuzhoun, Txinan. Euskal Herriko txapelketa bukatuta, 6 talde joan ziren Euskal Herritik eta horien artean Ibarrako tal-

dea. Talde honetako kide den Joxe Mari Uranga igeldoarra bertan izan zen eta berarekin elkartu gara Txinan bizitako esperientzia nolakoa izan den jakiteko asmoz.

Nola egin zenuten bidaia, zenbat denboran?

Bidaiari 25 ordu pasa genituen. Gainera bisatuarekin nahiko arazo izan genuen taldekide batzuk, eta bi txandatan iritsi ginen. Iristeko, 4 hegazkin, abiadura handiko trenak eta Shangaiko metroa hartu genituen.

Ibarrako taldekoak zer moduz ibili zireten? Dominik lortu al zenuten?

Klubari arteko lehiaketari dagokionean, 600kg-ko modalitatean, hirugarren geratu ginen (brontzea), 640kg-an laugarren, 540kg-an neskek hirugarren (brontzea)

eta 600kg-an mixtoan ere hirugarren (brontzea). Nazio arteko lehiaketan, Ibarrak Euskal Herria ordezkatu zuen 600kg eta 640kg-an eta bigarren (zilarra) eta laugarren egin genuen.

Euskal Herriko neskek ongi ibili zirela entzun genuen komunikabideetan. Txinatar neskek ere oso onak diren fama dute, ezta?

Txinako neskek onak dira bai, baina kontuan izan behar da beka-dun ikasle kirolariak direla.

Txina ezagutzeko denborarik izan al duzue? Zer inpresio

eman dizu herrialdeak?

Berez lehiatzera joateko urrutiegi geratzen da, ordu aldaketa, bidai luzeegia, diru asko... Ni lehiaketa egunetan bakarrik izan nintzen eta besterik ez. Taldekide batzuk berriz egun gehiagoz geratu ziren bertan.

Bitxikeriarik edo baduzu komentatzeko?

San Pats talde Irlandarrak erakutsi zuen nagusitasuna. Kategoria ezberdinetan nagusitasun handia erakutsi baitzuen. Eta bestetik, Txinan ingelesez jakiteak ez duela ezertarako balio, hoteleko ardura-dunak ere etzekien!

Erraustegiaren eta antzeko proiektu potoloen atzean dagoen «mafia», agerian

'Angula ustelak' hitzaldia eman zuten martxoan Ainhoa Intxaurrendietak eta Igor Meltxor kazetariak. Intxaurrendieta eta Errazkin orain dela gutxi epaitu dituzte erraustegia geratzeagatik. Epaiketa horren atzean benetan dagoena azaldu zuten hitzaldian.

Ainhoa Intxaurrendieta eta Igor Meltxor kazetaria Igeldon izan ziren martxoaren 22an, "Angula ustelak" hitzaldia eskainiz. Bertan, argi eta garbi azaldu zituzten Euskal Erregimenaren politikaren atzean dagoen «mafia» eta zer gertatzen den horri aurre egiten zaionean; «beraien negozioen tartean sartzen zarenean». Izan ere, Ainhoa Intxaurrendieta (Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioko burua zena) eta Iñaki Errazkin (Ingurumen diputatua zena) orain dela gutxi epaitu dituzte 2013an erraustegia geratzeagatik. «Errauste planta gairadimentsionatua». Apirilaren 12an epaitu zituzten Madrilgo Kontu Epaitegian eta 46 milioi euroko zigorra izan dezakete, kontratua hautsi izanaren kalteordainak eta SWAP maileguak direla eta. Datozen asteetan emango dute ebazpena.

Hitzaldian azaldu zuten bezala, epaituak izan dira, azken finean, «beste batzuek egindako azpijokoen ondorioz». 2011ko Udal eta Foru Hauteskundeen atarian, egun gutxi batzuk besterik ez zirela falta, orduan agintean zeudenek (EAJ) firmatu zituzten proiektua egiteko kontratua eta SWAP maileguak, ondorengoei eskuak lotuta utziz. Hala ere, arduraz jokatu eta 2013ko azaroan kontratua puskatzea erabaki zuten, «behingoz, administrazio publikoa eta herritarren interesak enpresen interesen ginetik jarritz», azaldu zuen Intxaurrendietak.



Euskal Erregimenaren ustelkeria zenbaterainokoa den azalduta, harrিতa geratu ziren asko.

Frogarik ez

Hauteskundeen ostean, aukeratuak izan eta karguak hartu zituztenean, erraustegiaren proiektuaren atzean zegoen mafia eta ustelkeria guztia azaleratzeko lanean aritu zirela azaldu zuen Intxaurrendietak, langileekin hitz eginez, informazioa eskatuz... «baina dokumentazioa falta genuen; frogak. Borratuta zeuden».

Datu batzuk lortu zituzten, hala nola, langile publikoek enpresa pribatuei idatzitako txostenak egin zirela, ingurumen baldintzak bete gabe onartzen zirela txostenak, FCCri diru publikoarekin kamioiak oparitu izan zitzaizkiola, EAJko Carlos Ormazabalek SWAP maileguak sinatu zituela gipuzkoarrak horiek ordaintzera lotzen zituela jakinda ere... Horrez gain, informazio eta frogak gehien emango zizkien akta batzuen berri izan zuten, baina egun batetik bestera,

ordenagailua "desagertu" egin zen.

«Gure negozioak ez ikutu»

Epaiketa honen atzean dagoen mezua argia dela azaldu zuten Igeldon: «Hemendik aurrera, gure proiektu estrategikoak, gure negozioak ez ikutu. Bestela hau gertatuko zaizue, esaten ari dira. AHTa, Donostiako metroa... berdin du. Agintera iristen bazarete ere, ez sartu».

Ez dela beraien kontra bakarrik eta herritarrak kezkatzeko moduko kontua dela adierazi zuen Intxaurrendietak: «Herritarrok eskubideak dauzkagu eta aski dela esan behar dugu ez dugula utziko nahi dutena egiten. Erraustegia kaltegarria da osasunarentzat eta baita herritarren poltsikoentzat ere». Honi guztiari aurre egiteko bide bakarra jendea informatzea dela gaineratu zuten.



Argazki gehiago: igeldo.eus

Igeldo, zuri-zuri

Aurreikuspenak betez, otsailak 28ko gauean elurra egin zuen itsas mailan eta Igeldo zuri-zuri esnatu zen. Goizean zehar, elurra egiten jarraitu zuen eta azkenean, 15 zentimetro elur pilatu zen.

Elurrak zenbait arazo eragin zituen herritarrengan, baina arazoak arazo, irudi politaskoak utzi zizkigun otsaileko azken egunak eta gozatzeko ere aprobetxatu zuten askok eta askok. Herriko maldak izan ziren protagonista. Edozein txokotan ikusi zitekeen jendea trineo eta antzekoekin jolasten. Eskiekin jaitsi eta igo zenik ere izan zen. Eta Plazan ere kuadrila polita elkartu zen. Txapela pareko aldapan ibili ziren, trineoekin, snow tablekin...

Eta ezin ahaztu abenduarekin batera ere elurra iritsi zela Igeldora. Aurtengoa dudarik gabe, elur urtea izan da. Ea zer moduzko udaberri eta uda ditugun!



Argazki gehiago: igeldo.eus



Argazki gehiago: igeldo.eus



Argazki gehiago: igeldo.eus

25 bat emakume elkartu ziren plazan, planto eginez

Zehazki Igeldoko zenbat emakume egin zuten planto martxoaren 8an ez dugu jakiterik, baina plazan kuadrila polita elkartu zela bai. Greba Feministaren deialdiari erantzunez, adin ezberdinetako 25 bat emakume elkartu ziren goizeko 11:30etatik aurrera. Besoko moreak banatu, kartelak jarri eta pankartak egin zituzten, hasteko. Aita Orkolagaren bustoa ere apaindu zuten!

Ondoren, 12:30ak aldera, kontzentrazioa egin zuten herri sarreran. 13:00etan, plazara gerturatu ziren berriz eta norberak etxetik eramandako bazkariarekin, tuper-bazkaria egin zuten. Kafe tertuliarako ere izan zuten tarte, 15:00ak bitarte.



Argazki gehiago: igeldo.eus

Herriko hainbat zerbitzutan, plantoa

Herritarrek, eskolako irakasleak eta Haurreskolako hezitzaileak elkartu ziren goizeko deialdian. Eskolan, emakume gehienek egin zuten plantoa, jangelan zerbitzurik ez zen izan, eta Haurreskolan zerbitzu minimoak eman zituzten.

Bestalde, Ieltxoko bi ikastaro ez ziren eman (pianoa eta hipopresiboak) irakasleek greba egin zutelako. Herriko dinamizatzaileak ere bat egin zuen greba deialdiarekin eta kultur etxeke bulegoa itxita egon zen.

Arratsaldean, bigarren deialdi bat egin zen Igeldon. 19:00etan plazan elkartu eta denak batera autobusean jaitsi ziren Donostiako manifestaziora.



Argazki gehiago: igeldo.eus



Argazki gehiago: igeldo.eus

Bingo eta guzti aurtengo Emakume Afarian

Emakumeen Egunaren bueltan, Emakume Afaria egin zen larunbatean Igeldon (martxoak 10). Ohi bezala, Igeldoko emakume baserritarrek antolatu zuten afaria. Aurtengoan, herriko 55 emakume elkartu ziren eta betiko moduan, giro ederrean ibili ziren.

Igeldoko Iturrieta Berri jatetxean (kanpinean) izan zen afaria eta tripa ederki bete ostean, oparien banaketari ekin zioten. Eta oraingoan, ohiko zozketa bidez izan beharrean, bingoan jokatzuz aukeratu zituzten saridunak. Alde batetik, linea aurrea kantatu zuenak urdaiazpikoa eta sorpresa txiki bat eraman zituen; Amaia Errazkinek, hain zuzen. Eta bestetik, bingoa kantatu zuenak saski mundiala eta sorpresa txiki bat irabazi zituen. Kasu honetan, Larraitx Zubeldia izan zen sariduna. Beretzat izan ziren Igeldoko baserrieta-ko barazkiak, arrautzak, behi esnea eta ardi esnea, gazta, txerrikoa, masaje saioa, lore bat... Gustora hartu zen bingoarena eta saltsa polita sortu zuen!



Argazki gehiago: igeldo.eus



Argazki gehiago: igeldo.eus



Argazki gehiago: igeldo.eus



Goizuetako kontzertuko irudia.

Lezkarriko kideak, udaberria alaitzen

Udaberrian sartu ginenetik kontzertu bat baino gehiago eman dituzte Lezkarri abesbatzako kideek eta maiatzaren 12an Igeldon eskainiko dute emanaldia, Udaberri Jaiaren barruan. Azkoitiako Iraurgi abesbatzarekin ariko dira. Aurretik, Goizuetan eta Antiguako Esklabetan aritu dira gerturatutakoen belarriak goxatzen, eta udaberria alaitzen!



Argazki gehiago: igeldo.eus

Jolas, abentura eta irribarre ugari elkarbanatu dituzte Zerainen

Azkenean, hainbeste itxarondako Kixmiko irteera egin zuten apirilaren 20ko asteburuan. 40 bat lagun inguruk Zeraingo aterpetxean igaro zuten asteburua. Bertan, herria ezagutzeaz gain, jolas, abentura eta irribarre ugari elkarbanatu zituztela azaldu dute. Eta honakoa gaineratu: «Honelako asteburuek indarra ematen digute aurrera jarraitzeko eta azken urteetako egoera erraza ez den arren, elkarrekin lor dezakegula ikusten dugu. Primeran pasa genuen, mila esker parte hartzeagatik eta laster arte!!».



«Pitito ta potota, gonari ez zaio inporta!»

Apirilaren 10ean Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazokak Igeldoko herri eskolara etorri ziren «Gona Gorria» kantaren bideoklipa bertan grabatzera. Bai ikasle, baita irakasle eta gurasoek ere, parte hartu zuten grabaketan. Bi baldintza bete behar ziren bideoklipan parte hartzeko, hori bai! Batetik, gona jantzita etortzea; eta bestetik, dantza egin eta ongi pasatzeko gogoia izatea.

Nolatan Igeldoko eskolara?

Azaroaren 25ean, Emakumeenganako indarkeriaren aur-

kako Nazioarteko Eguna da eta egun horren harira, Igeldoko eskolako ikasle eta irakasleek, guztiak gona jantzita, dantza bat egin zuten eskolako atarian. Eskolatik adierazi dute hori izan daitekeela besteak beste, Igeldoko eskolara etorri izanaren arrazoia: «Igeldoko eskolako hezkuntza proiektuaren barnean hezkidetzak garrantzi handia du eta, baliteke, hori, eskola txikia izatearekin batera, pailazoen gure eskola aukeratzearen arrazoia izatea».

Azken finean, Pirritx eta Porrotxen kantak dion bezala, «pitito ta potota, gonari ez zaio inporta!!!»



Miru beltza aske, bere bidea egiteko prest

Igeldoko Arrano etxean, Gipuzkoako animalia basatiak jasotzen dituzte; zaurituak, gaixo daudenak edo kumeak. Eta horiek zaindu eta erre-kuperatzen saiatzen dira, besteak beste. Animalia horiek ondoren, guztiz sendatu edo hazten direnean, askatu egiten dituzte beraien habitatetara bueltatu daitezzen.

Sentsibilizazio programa bat ere badute eta horren barruan, eskolako umeekin egiten dute lan. Esaterako, beraienkin askatzen dituzte animaliak. Orain arte, Donostiako hainbat ikastetxetan egin izan dute, baina apiriletik aurrera, Igeldoko eskolan ere hasi dira. Hain zuzen, apirilaren 25ean askatu zuten lehenengo hegaztia eskolan. Mikel Urruzola igeldoarra izan zen bertan (Arrano etxeko langilea) eta Karmenxuren gelako umeak izan zituen laguntzaile.



Mikel Urruzolak Karmenxuren gelako umeak izan zituen laguntzaile.

Miru beltza askatu zuten. Bere garaian kume bat zela hartu zuten Arrano etxean eta behin hazita, libre utzi dute bere bidea egin dezan.

Letra zopa

**LETRA ZOPA
IGELDOKO KALEAK**

C	P	I	A	I	S	E	E	L	R	I	L	A
T	R	I	A	U	E	O	I	B	G	L	D	B
L	X	U	L	D	E	G	S	E	C	I	A	I
A	G	I	O	O	R	T	D	S	O	T	B	S
P	G	F	M	U	T	N	U	L	M	S	U	U
A	R	U	M	I	A	E	U	M	T	A	Z	L
B	A	Y	D	P	S	X	G	I	E	S	T	M
I	R	G	O	A	T	T	I	U	A	I	A	
D	M	K	I	I	M	Z	A	O	S	L	N	T
E	O	A	R	T	E	E	L	R	O	D	Z	L
P	I	R	C	M	I	C	N	I	R	E	U	Z
E	A	O	A	M	I	M	E	D	N	I	R	A
M	A	R	A	B	I	E	T	A	I	K	I	E

Aurkitu beharreko hitzak:

AGITI
PILOTEGI
POKOPANDEGI
TXIMISTARRI
MURGIL


AMEZTI
ARRITXULO
BUZTINZURI
ETUME

GUDAMENDI
ITSASALDE
LAPABIDE
MARABIETA

Gurutzegrama

Sudokua

Igeldo




2			8	5				
8	9	7			1	5	6	4
5	1						2	
6	7	2	5	1				
		8						
	5		4	8	6	2		7
	8			6	3			
		3	9		8			1
	6	1		5	4		7	3

Horizontala

- 2. Igeldoko jaiari izena
- 3. Haurren aisialdialdi arduratzen den eragilea
- 8. Toki tekian biztanlearen kontzentrazio maila altua duen bizitegi-gunea
- 10. Hegoaldeko zuhaitz-igela
- 11. Euzkadiako lehen meteorologoa
- 12. herria duen jaietako famatuena munduan zehar

Bertikala

- 1. Chanel i jantziaren agintzen jostari eraguna
- 4. Karso azpirik duen kalera
- 5. 415 metro dituen mendia
- 6. Hegoaldeko muga egiten duen herria
- 7. Grialdugnitzara "monte igeldo" izeniaz ezagutzen den mendialdeko izena
- 8. XVI mendeko burua



Udaberri Festa, berezia

Aurtengo Udaberri Festa berezia izango da. Azken urteetan, festa honetan ateratako dirua Kooperatibari laguntzeko erabili izan da eta aurren, helburu hori izateaz gain, Kooperatibaren proiektu berria izango da ardatz. Proiektua herrian eta herritik kanpora zabaltzeko aprobeixatu nahi da aurtengo Udaberri Festa eta horretarako, egitarau ederra prestatu dute. Azpimarratzekoa da, igandean egingo den Barazki, Lore, Landare eta Zuhaitz azoka. Kanpoko jende ugari gerturatzea espero da.

Dena dela, ohiko esentziari ere eutsiko dio eta primerako barrikotea, zentollo eta guzti, eta San Isidro eguneko afaria ere izango dira, besteak beste.

UDABERRI FESTA

Maiatzak 12, larunbata:

18:00 HITZALDIA kultur etxean: "Igeldoko Kooperatibako proiektuaren antzeko ereduak aztertuz".

19:30 LEZKARRI (Igeldo) eta IRAURGI (Azkoitia) abesbatzen emanaldia. Eskolako aretoan.

21:00 BARRIKOTEA sindikatuan.

Ondorenean, Itziar Zamorarekin kantaldia.

MENUA: Zentolloa, oilaskoa parrillan, postrea eta kafea. Prezioa: 20€.

**TXARTELAK: Txapelan salgai, (maiatzak 10, osteguna arte).*

Maiatzak 13, igandea:

10:30 LANDARE, LORE, ZUHAITZ ETA ZUHAIXKA AZOKA plazan. Denak salgai egongo dira eta baratzako landare eskaintza zabala egongo da.

11:00 **atetik aurrera**, GAZTA eta ARDO dastaketa eta Kooperatibako informazio gunea sindikatuan. Aurrera begira egon daitezkeen produktuetako batzuk ere salgai!

13:30 OILASKO ERREA PARRILLAN plazan. Barra ere egunean zehar irekita izango da.

16:00-18:00 Dj Esther plazan.

Maiatzak 15, asteartea

San Isidro eguna:

19:30 TOKA txapelketa plazan.

21:00 Afaria TXAPELA tabernan.

OHARRA

Iritzi-artikulua argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingaririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak uztailan eta urrian izango dira (igeldokoorria@gmail.com).



**IGELDOKO
HERRI
KONTSEILUA**

Itsas Aurre Kultur Etxea
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo
Tfona. 943 313 030
Emaila: igeldokoorria@gmail.com



Laguntzailea **Donostiako Udala**